

Martina Bergara Almandoz

*Arantza,
Nafarroa
(1930-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Arantzan sortu zen,
Atanbordan. Guraso biak
Arantzakoak zituen.

Zintak

ARN-017

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-14
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-018

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-14
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-019

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-14
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Arantzako dendak. Baserritarrekin harremana

- **Erref:** ARN-017/001
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

4 denda zeuden Arantzako eta erdi denda erdi ostatua zen bat. Baserritarrek ez zuten beti dirurik izaten eta orduan adibidez aretxe bat saltzearekin zorra ordaintzen zen orduan. Baserrietan urte guztiko artoa bazegoen salbatuta zeuden. Artoa jo, irina egin eta hirin txarra txerriari ematen zitzaion. Dendakoei saltzen zizkioten oilaskoak edo bildotsak adibidez, ez zituzten berehala ordaintzen. Baserritarrek libreta batean apuntatu behar izaten zuten zein zen dendak zor ziena. Dendetakoak oso ongi bizi ziren hala. Beti geroko uzten zuten zorra.

2. Gaztainak

- **Erref:** ARN-017/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:01. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gaztaina asko zegoen Arantzan. Aita gaztainak txertatzen ibiltzen zen eta hartara fruitu hobeak ematen zuen zuhaitzak. Gaztaina aunitz saltzen zuten. Gaztainen garaian egiten zituzten abarkak, artilezko galtzerdiak, alkandorak... orduan ateratzen zuten diruarekin. Gero gaztaina bukatu zen. Gaitz handi bat bazuen gaztainak baina bestela ere biltzeari utzi zioten. Gaztainak biltzeko 4 errubo erabiltzen zituzten astoarekin. Errubo bakoitza 24 kilo.

3. Pisuak

- **Erref:** ARN-017/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Pisua ez zen erromatar horietakoa. 2 gantxo zituen, bata makil batean lotzen zen eta bestea zakuan. Horrela zakuak neurgailua tiratzen zuen behera eta pisua neurtzen zuen. Oso zuzena zen. Dendan baskula zuten. Horrez gain 2 platerrezko pisua ere, orratza erdian eta pisu txikiekin orekatzen zena. Denda batean amarrua egiten zieten. Paper lodia kafearekin batera pisatu eta gero paper puska bat kentzen zieten, baina berdina kobratu.

4. Dendakoak oso ongi bizi ziren baina gero okertu ziren

- **Erref:** ARN-017/004
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Amarruekin eta ongi bizi ziren dendakoak, baina bidea okertu zitzaaien halako batean. Eskola pixka bat ikasi zenean, (lehenago jendeak ez zuen asko ikasten, lana zela eta), papera bat erabiltzen zuten aldiro baserritarrek kontuak eramateko, ez baitziren dendakoez fidatzen. Astean behin kontuak egin eta orduan hasi zen dendakoen bizia aldatzen. Lanean hasi behar izan zuten orduan, jendea esnatu baitzen.

5. Denden arteko konpetentzia

- **Erref:** ARN-017/006
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bazen denda bat non udaleko kontribuzioak ordaintzen ziren. Denda horretakoek mota guztietako gaztainak erosten zituzten, handiak nahiz txikiak eta ordaintzen zuten diruarekin, baserritarrek kontribuzioa ordaintzen zuten. Beste dendakoak bijilatzen egoten ziren, zeinek saltzen zituen gaztainak beste dendara. Pikea zuten.

6. Albolba

- **Erref:** ARN-017/008
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Artoa nola bildu eta zuritzen zuten azaltzen du. Albolba nola prestatzen zuten ere. Dendakoei albolba saltzean izan zuten ika-mika bat ere kontatzen du.

7. Dendakoen izaera maltzurra

- **Erref:** ARN-017/010
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Amak pixka bat abandonatua zuen mutiko bat dendara mandatuetara joan eta galdetu zioten: zer Joxe Benito ama etxean da gaur? - Bai. - Banekien etxean zela, aurpegia ez dizu garbitu eta amantala ere zikin ekarri duzu!!! Esan zioten denen aurrean. Dendakoak holako gaiztoak omen ziren. Gazteluko beste mutiko bat dendara joan dirurik gabe eta amak apuntatzeko esan ziola aipatu zien dendakoei. Apuntatu, apuntatu... eta disparatu noiz egin behar digu? Erantzun zioten dendakoek.

8. Aratxea hil arte ezin pagatu

- **Erref:** ARN-017/012
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:24:43. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Baziren aratxea hil arte zorrak pagatu ezin zutenak. Aratxea hil eta orduan pagatzen zieten dendakoei, agian dena ere ez, baina zorra bajatzen zuten. Etxe gehienetan ere zerria hiltzen zen. Gaztainekin hazten zituzten. Zerriak ere saldu egiten ziren, 5-6 zerri, eta diru harekin ere pagatzen ziren kontuak.

9. Erremedioak. Anginak, katarroa, pleuresia...

- **Erref:** ARN-017/014
- **Iraupena:** 0:08:53. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Anginetarako malbabiskoa. Landarearen zain txuriak irakin, ura iragazi eta gargarak egin horrekin. Ardo egosia ere erabiltzen zen, azukrearekin. Katarroarendako, muxarra izeneko animaliaaren urina zartagin batean urtu eta hori bularrean eta bizkarrean ematen zuten. Pleuresiarendako berbena izeneko belarra erabiltzen zuten. Olio pixka batekin zartagin batean erre, xehetu eta arrautzearen zuringoa ere botatzen zitzaion. Tortilla moduko bate

egiten zen eta trapu batean biltzen zen eta gerri inguruan jartzen zuten. Medikua bera harritu zen behin berbena enplasto horren eragin onaz. Antton Maizek eskuetan jartzen zituen berbena tortillak eskuak deskantsatzeko. Zaurietarako eta gangrena ekiditeko gangrena belarra erabiltzen zuten, egosi eta haren ura edateko. Gaztainerkin ziztatu, ubeldu eta gangrena belarrarekin osatu zen.

10. Sugeak ausiki ematen bazuen

- **Erref:** ARN-017/016
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:35:14. **Bukatu:** 00:36:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxean ez zuten behin ere egin, baina bazen errezo bat. Lehenbizi ausiki egin zuen tokian ebaki behar zen gurutzea eginda. Zauria urarekin ongi garbitu eta gero aitagurea errezatu aitzinetik gibelerara.

11. Ahoko infekzioentzat erremedioa

- **Erref:** ARN-017/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:38:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Disiplatua bazuten ahoa (flemón edo ahoko infekzioa), zera egiten zuten. Ura irakiten jarri lurrezko eltze batean, arto pikor batzuk, erramu hostoa ere bai, eta gogoratzen ez duen beste zerbait. Ondoan jartzen ziren orrazi bat, aitzurrak eta beste zerbait. Dena palangana batean jarri eta ateratzen zuen lurruna arnastu beharra zen.

12. Gangarrilak eta zingirioa

- **Erref:** ARN-017/019
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:38:57. **Bukatu:** 00:43:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bildotsei gangarrilak (ganglioak) puzten zaizkie. Pertsoneri ere puzten zaizkie eta bazen errezu moduko bat horiek sendatzeko. Errezua esaten du Martinak. "Gangailak suan zirt-zart". Esne asko zuten amek izaten zuten zingirioa bularrean, adibidez. Martinak izan zuen zingiria bular batean, esnea hoztu eta gogortu baitziztaion (sukarra ere izan zuen). Ahizpak bularra berotu eta ahoarekin atera zion esne txar hura.

13. Igortz minak

- **Erref:** ARN-017/021
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:29. **Bukatu:** 00:45:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eskumuturrean mina ematen zuten. Koinatua aritzen zen igortz minak ateratzen. Hagitz min handiak ematen zituen. Eskumuturra igurtzi behar izaten zen fuerte, olioarekin. Sufritzen zen asko, baina kentzen zen. Orain operatu egiten dute.

14. Barizela (astana larria) sendatzeko

- **Erref:** ARN-017/023
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:47:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zerrien gorotz idor gainean iraulka ibili eta sendatzen zen astana larri hori.

15. Sanjuanxarreko iturriko ura sarnarentzat eta karitxentzat

- **Erref:** ARN-017/025
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:47:27. **Bukatu:** 00:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sarnarendako, Sanjuanxarren badira 3 iturri eta 3etatik edan behar zen eta gero ur horrekin sarna den tokian igurtzi, trapu garbi-garbi batekin. Gero trapua han utzi beharra zen. Iloba batek bertako urarekin garbitu zituen karitxak eta denak joan zitzaizkion.

16. Animalientzat txitxainmariak (Izainak edo sangijuelak)

- **Erref:** ARN-017/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:50:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Orain tentsioa esaten zaio, baina lehenago animaliei odol kolpea etortzen zitzairenean izainak edo txitxainmariak erabiltzen ziren odola zurrupatzeko. Oihalezko zaku batean sartzen ziren eta horrekin gorputzeko parte batean jartzen ziren. Odola tiratzen zuten eta horiekin sendatzen zen orain tentsioa esaten diogu hori. Pertsonekin ere erabiltzen ziren.

17. Ur zorria edan ezkerro, pertsonen pixa

- **Erref:** ARN-017/029
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:50:26. **Bukatu:** 00:52:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Erreketan izaten dira ur-zorriak izeneko bitxo batzuk. Ura edatean horietako bat edan ezkerro, horiek sabelean hiltzeko pertsonen pixa hartu behar zen, izugarrizko sabeleko mina ematen baitzuten. Honi buruzko pasadizo bat kontatzen du.

18. Erremedioak. Belarriko minarentzato leizarraren ura. Trupesiarentzat errezuak

- **Erref:** ARN-017/031
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:52:58. **Bukatu:** 00:54:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Leizarraren (fresno) adarra sutan berotu eta halako apar bat ateratzen zitzaion. Hori erabiltzen belarriko mina sendatzeko. Trupesiarekin sabela handitu egiten da eta ezin izaten da jan. Igantziko emazten batek erreziekin sendatzen omen zuen gaitz hori.

19. Erremedioak. Arantza ateratzeko eta zaurientzat. Mingaineko legarrentzat.

- **Erref:** ARN-017/033
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:59:42. **Bukatu:** 01:01:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ebakbelarrarekin egiten zen, gaineko azalarekin. Sun ondoan beratzen zen. Ona zen arantzak kanpora tiratu eta zauriak sendatzeko. Mingaineko legarrendako giltza batekin arraskatu egiten ziren. Beheko suko laratzarekin ere igurtzen zuten mingaina, legarra kentzeko.

20. Ertularentzat erremedioa

- **Erref:** ARN-017/035
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 01:01:49. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Hatzeko mina izaten zen ertula, oso mingarria. Ebakbelarra erabiliko ote zen pentsatzen du Martinak. Gero ur irakinetan hatza sartu eta atera.

21. Erremedioak, zizareentzat, kalenturarentzat...

- **Erref:** ARN-017/037
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:02:42. **Bukatu:** 01:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haur koxkorrek zizareak izaten zituzten batzuetan gorpuzkinetan. Horiek kentzeko zizare belarra egosten zen eta hura edan. Horrekin hiltzen ziren. Kalenturarendako kotoia bustitzen zen alkoholetan, bi besapeetan jarri eta horrek ere aunitz jaisten du tenperatura.

22. Sorginak Arantzan

- **Erref:** ARN-018/001
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:00:03. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Antonio izeneko gizon batek zuen sorgin fama. Emaztea zuen, Jexepantonia izenekoa. Gizona hil zenean emazteari eman omen zizkion sorginkeriak. Umeei esaten zieten norbaitek esan ezkerro: Nik utzi nituenak, zuk hartuko dituzu? Ezetz esateko, bestela sorginkeriak pasatzen baitzizkizun. 15 egunero merkatuak izaten ziren Donezteben, Elizondon, Lesakan. Beste gizon batekin joan zen merkatura Antonio sorgina eta bueltan, pixka bat esertzeko eskatu zion. Lokartu zen Antonio eta ez esnatzen, ahospez zegoen. Belea heldu zen eta beste gizona buelta eman zion Antoniori esna zedin. Ahoa ireki zuen batean belea sartu zitzaion ahotik. Hori kontatzen zuen beste gizon hark.

23. Joxepantonia sorgina katu bihurtuta

- **Erref:** ARN-018/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Martinaren senarra bordaluzekoa zen. Ezkontzeko bezperan, arratsaldean katu bat atera zitzaion bidean. Sorginak behin jo behar dira, bestela gehiago bizkortzen direlako. Beraz, senarrak ostiko handi bat eman eta bideti beheiti bidali zuen katua. Joxepantonia asko joaten zen haien etxera eta biharamunean zerriei bazka emanez erori zela zioen, izterrean ubeldua zuelako, baina Zipriano senarrak uste zuen berak emandako ostikadaren ondorio zela.

24. Ama alabak sorginak

- **Erref:** ARN-018/004
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:13:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Alaba neskaxa eta ama alarguna, biak sorginak. Neska horrek mutila zuen. Mutila gau batez neskaren etxera joan zen afaltzera abisatu gabe eta ez zuten deus afaltzeko. Lo belarra eman zioten mutilari, zizailuan etzan eta Zaragozara joan ziren hegan "hodei guztien gainetik eta larre guztien gainetik" afatzeko mutiko baten bila. Sorginetako bat tronpatu eta Hodei guztien azpitik eta larre guztiek azpitik" esan eta larrutua itzuli zen. Mutila esnatu eta ez zien mutikoa hitzen utzi eta berak hazi zuen.

25. Emagina eta sorginak

- **Erref:** ARN-018/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Sunbillako etxe batean sorgin fama zuten. Haurra jaio beharra zen eta emagina joan zen laguntzera. Ohartarazi zioten, fama hori zutela baina ez zitzaiola deus gertatuko eta opari ona izanen zuela trukean. Joan zen beraz. Haurra jaiotzen lagundu eta bukatutakoan urrezko txarrantxa bat eman zioten. Etxera joatekoa zelarik esan zioten bidean mota guztietako musikak entzuten zituela baina behin ere ez atzera begiratzeko. Bide guztia egin zuen atzera begiratu gabe, baina etxeko atera heldu zenean, erdia sartua zen atarian, atzera begiratu eta txarrantxaren erdia desagertu zitzaion.

26. Boz bat mendi erdian

- **Erref:** ARN-018/007
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Senarraren atautxiri beste au gertatu zitzaion. Musean ari zen Sunbildarrekin. Aranztar gehiago bazen eta ia joanen ote ziren herrira, berandu baitzen. Partida bukatu nahi eta besteak joan. Bukatu eta lasterka hasi zan herrira buru, baina boza bat entzun zuen: "Gizon, lasterka joaten ahal zara baina ez dituzu lagunak harrapatuko, aurrerago daude dezente". Orduan bai izutu zen! Ez zuen berriz Sunbillako bide hura bakarrik egin behin ere.

27. Lamiak Anibarren

- **Erref:** ARN-018/009
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:17:19. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Anibarren senar-emazteak bizi ziren bakarrik. Maria emazteak lihozko haria egiten zuen. Lamia etortzen zitzaion tximinitik beheiti gantza pixka baten eske. Lamiarekin nazkatu eta gau batean senarrak jarri zituen emaztearen jantziak eta zartagin bat bete zuten olio erakinez. Lamia heldu eta esan zion - Hi ez haiz pirrin-pirrin, y porron-porron haiz... Nola duzu izena? Eta gizonak

erantzun: “Nehor nire buru” eta olio irakina bota zion eta Lamia garraxi batean alde egin zuen. Gainontzeko lamiengana joan eta galdetu zioten ia zeinek egin zion hura: - “Nehor nere buruk”. Lamiak bere buruari egin bazion, zeini eman kulpa?

28. Lami eta sorginen arteko ezberdintasunak

- **Erref:** ARN-018/010
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:20:06. **Bukatu:** 00:22:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lamiak zuloetan bizi omen ziren. Sorginak pertsona bat izaten ahal zen sorginkeriekin. Lamiak zibilizatu gabeko jendea izaten ziren. Gauez ebasten zuten eta hortatik jan. Norbaitek lamiak ikusi zituen ilea orrazten. Harri baten gainean, eguzkitan, batak besteari ilea orrazten. Sorginak pertsona normalak ziren, sorginkeriak hartuak. Animalia bilakatzen ziren batzutan: katu, asto, bele...

29. Argatako neskata

- **Erref:** ARN-018/012
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Argata baserrian bazen neskata hagitz eder bat. Ilea ondulatua zuen... Telebisorik ez zenez, astean behin edo etxe batekoak bestekoekin biltzen ziren, kafea hartzeko, solas egiteko... Ura bukatua zen etxe batean eta apostua egin zuen, baietz subila (ura garraiatzeko ontzia) bakarrik ekarri 12etarako. Etxetik atera eta berehala tximiniatik erori zen subila eta neskataren ilea. “Subila eta ilea zuendako, neskata guretako”, lamiak hartu zuten seguraski eta ez zen gehiago agertu.

30. Antonio txikia

- **Erref:** ARN-018/014
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:27:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehenago baserrietan batasun handia zegoen elkarri laguntzeko. Artoa biltzeko adibidez, beste etxeetako lagunak joaten ziren laguntzera. Antonio, Martinaren anaia oso graziosoa zen. Labana txiki eta kamustua zuen lanean aritzeko bezala eta kendu behar ziotela eta halako erantzun irrigarria eman zien Antonio txikiak.

31. Antonio sorgindua

- **Erref:** ARN-018/015
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:30:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Antonioren arreba txikia jaio eta 3 emakume joan zitzaizkien bisitan. Antoniok 2 urte zituen eta denek ibili zuten besoetan eta... Emakumeak etxera joan zirenean eta mutikoak arratsaldean "ama" esan behar zuela eta ezin esan. Beste hitz batzuk ere ezin zituen esan. Urnietara joan ziren umeak sendatzeko egiten zuten meza batera. Mutikoari kandela bat eman eta han ziren beste kandela batzuk ere hautsi zituen. Ebanjelioak ematen hasi ziren eta emakume bat ziribuztanka (itzulipurdika) hasi da eta arropa guztiak zikin eta ileak nahastuak eta... sorginkeria omen zuen barnean. Antonio txikia han sendatu zen.

32. Sorginak eta Lamiak nola desagertu ziren

- **Erref:** ARN-018/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:30:37. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Apaizak edo obispoak konjuratu egin zituen hainbat urteko. Lihoaren hazia oso txikia da eta errubo batean sartzen diren hazi guztien adinako urterako konjuratu zituzten sorginak eta lamiak.

33. Apaizen bedeinkazioa

- **Erref:** ARN-018/017
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:37:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Apaizek landak bedeinkatzen zituzten. San Migel herrira etortzen zenean, oinez heltzen zen oinez Sunbillatik eta Arantzako apaiza eta zinegotziren bat bide erdira atera eta haiek laguntzen zuten herrira. Gauza bera Igantzitik bazen. Aita udaletxeko kargoa zuten eta joaten ziren San Migelengana seme-alabak eta ziebarekin. San Migelen despedidan meza egiten zen eta landak bedeinkatzen ziren herriari buelta emanda. Haize eta erauntsietatik babesten zuen. San Juan inguruan ere apaiza eta monagilloren bat ibiltzen zen etxez-etxe landak bedeinkatzen. Animaliak ere egun horretan herrira ekartzen ziren bedeinkatuak izan eta gaixotu ez zitezen. Bi apaiz ziren eta Arantzako 4 auzoetan egiten zituzten bedeinkazioak, 2 egunetan. Egun bakoitzean baserri batek ematen zion bazkaria apaizari. Bildotsa edo oilaskoa ematen zioten.

34. Telefonoa Arantzan

- **Erref:** ARN-018/019
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:38:06. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arantzako telefono publiko bakarra Oteizaren dendan zen. Telefonoz deitzen zelarik jende guztiak aditzen ahal zuen dena. Urmenetaren bitartez, 30 baserritan telefonoa 30 baserritan jarri ezker 750 pezetako deskontua egiten zuten. Dendakoek hori jakin eta Urmenetari erantzun zion inor ez zuela telefonorik nahi Arantzaren. Esteban Irigoien apaiza Iruñean egon zenean hura jakin, herrian galdetu eta 60 etxeetan eskatu zuten telefonoa. Herriko etxean ere jarri zuten bat publikoa., estankokoek hartu zuten bere ardura. Telefonista bat zegoen eta ez zen numerorik sakatu beharrik ere. Hori ongi zegoen pertsona zaharrendako. Gero automatikoak jarri zituzten, zuzenean deitzeko etxetik zentralitatik pasa gabe. Horrek 5000 pezeta kostatu zituen.

35. Apaizei oparia bedeinkazioengatik

- **Erref:** ARN-018/021
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:43:11. **Bukatu:** 00:44:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

apaizak etxeetara bedeinkazioak egitera joaten zirelarik, opariren bat egiten zieten. Gehienek gazta bat. Onena irudi zuena apaizarendako izaten ziren. Auzo batek 22 etxe zituen, beraz 22 gazta. Gaztarik ez zuenak oilasko pare bat, edo oilo eder bat, edo arrautzak...eta gainera baserrian bazkaldu.

36. 2 apaizak auzoetara elkarrekin

- **Erref:** ARN-018/022
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:44:01. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Esteban Irigoien eta Javier Urrutia apaizak auzoetara biak elkarrekin joaten ziren bedeinkazioak egitera. Beraz ez 2 egunetan, baizik eta 4etan. Sakristaua eta beste lagun batekin ere joaten ziren. 4Rei eman behar izaten zieten bazkaltzen eta gero apaizek pikea izaten zuten musean. Behin gizon bat besterik ez etxean eta Martinari esan zioten Urrutiarekin jokatzeko. Nola egingen zion berak keinu apaizari? Ez zuen nahi baina jokatu zuen. Lotsatuta ez zion aurpegira begiratzen. Apaizak esan zion begiratzeko eta keinu emateko.

37. Sakristauak etxez-etxe eskean

- **Erref:** ARN-018/024
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:50:32. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sakristau eskea egiten zuten sakristauak eta artoa biltzen zuten. Behorrek pasatzen ziren eta saski batekin artorik onena ematen zitzairen. Batzutan andrearekin ere joaten ziren eta jateko zerbaitekin ere ematen zieten etxean. Hori izaten zen sakristauaren jorjala. Norbait hiltzen zenean edo bataioetan ere laguntzen zuen sakristauak eta horregatik izaten zuen jorjal gisa artoa biltzeko aukera.

38. Ardi eskea

- **Erref:** ARN-018/026
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:54:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Norbaitek artaldea egin nahi bazuen, ardi eskea egiten zuten eta artantxuak (lehen urteko bildotsak)

39. Baserri aldaira. Bazka eskea

- **Erref:** ARN-018/027
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:54:23. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Baserri batzuk hustutzen zirenean familia zenbait Frantziara edo ameriketara joan zirelako, baserri kaxkarragoetan bizi ziren familiak aldaira egiten zuten baserri hartara, maizter. San Martinetan, azaroan. Ezkoingaiak ere etxea behar bazuten eta etxe huts batera joatekoak baziren, bazka eskea egiten zuten, lastoa-eta... behien oheak egiteko.

40. "Minttini-manttana"

- **Erref:** ARN-018/029
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:56:54. **Bukatu:** 00:59:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gaztainak zuritu, danbolinean erreta, eta bakoitzak bere egurrezko oporrean jartzen zituzten. Eskuetan gordeta hartu eta besteek zenbat zeuden asmatu behar zuten, kantatuz: "Minttini-manttana, sobera barbara, betea" edo "Zaldun kortin, pipitx kortin, zenbaten artin" eta esku horretan zenbat gaztaina zeuden asmatu beharra zen. Gaztaina diferentzia ordaindu behar zion batak besteari.

41. Toberak

- **Erref:** ARN-018/031
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Neska bat espozteko zenean, pregoia egitera heltzen zen apaiza. Neska horren etxean bazkaria egiten zen, pregoi-bazkaria. Ilunabarrean auzoko neska-lagunak txokoloatea hartzera gonidatzen ziren. Geroago mutilak heltzen ziren toberak jotzera akordeonakin eta dantzak izaten ziren. "San Martin de la monja, monja de san Martín, tobera jo dezagun, birjina Mariakin. Oi ai, jantzirik dago, bi almudarekin, nobia izateko nobio jaunakin". Atea ireki eta denak sartzen ziren etxean. Festa egiten zen ondotik. Auzokoek jotzen zituzten toberak. Ez bazen bi auzo ezberdinetako ezkongaiak ezkontzen zirela. Lutoa bazen ez ziren joaten. Batzutan plazan ateratzen zen merendua, toberak jotzera ez joateko etxera. Alarguna esposten bazen joareak jotzen zizkieten gazteek.

42. Haurrak etxean jaiotzen ziren

- **Erref:** ARN-019/001
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Medikurik gabe jaiotzen ziren, etxean. Emaginak izaten ziren laguntzeko. Bere etxeko zenbait emazte izan ziren emaginak. Plazenta (haur-ondokoa) azkar samar kendu behar zen. Emazte bat hala hil zen. Emaginak eramaten zuen haurra bataiatzera. Ama jaio eta ez zuen esnerik izaten berehala eta orduan ura azukrearekin ematen zioten haurrari, maindire puntan bustia.

43. Haurren arropak

- **Erref:** ARN-019/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lehenbizi mauka luzeko atorra erabiltzen zuten txikiek. Gero troxak izaten ziren, benda gisako bat, haurra gorputzera pegatua izateko. Pañal bezala oihal lodixeago bat jartzen zuten. Denak garbitu behar ziren, etxeetan ez zen urik izaten,

44. Elizara sartzea

- **Erref:** ARN-019/005
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haurra jaio eta ama etxean izaten zen indarrak hartzen, baina ezin zuen kalera atera elizan sartu bitarte. Ahizparen batek eramaten zuen haurra elizara eta ama ere bai. Apaiza abisatzen zen eta piztutako kandela bat eramaten zen. Elizan sartu aitzin kalera ateratzen baziren teila paratu behar zuten buruan.

45. Auzokoen bisita amari

- **Erref:** ARN-019/006
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:11:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Parienterik hurbilenak etxera agertzen ziren oiloekin. Izaten zen bisita eguna ere, emazteak joaten ziren "Atso bisita" esaten zitzaion horri. Egun hortarako bazkaria egiten zen, oiloa hil, bildotsa erre...Aguardiente txuria eta aguardiente gorria eramaten zuten, azukrea, txokolatea, tomate latak, ardoa... bakoitzak eramaten zuenaren portzioa azaltzen du. Amari haurra jaio eta berehala oilo salda ematen zioten bizkortzeko, kina ere ematen zioten.

46. Kafea nola egiten zen lehenago

- **Erref:** ARN-019/008
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Larazetik zintzilik izaten zen "neskatoa" izeneko aparato bat. 3 pata zituen eta ipurdi bat. Kazua gainean jarri ezker ezin zen irauli. Han egiten zen kafea eta hondarra ez zen botatzen. Beste aldi batzuetarako ere balio zuen. Kafeari buruzko pasadizu bat bere familian. Ez zen kafeari botatzeko aski azukre eta sakarina erabiltzen zuten. Estraperloz ekarria hura ere. 2-3 goilara azukre eta 6-8 sakarina ematen zitzaion kafe katilu handiari. Ogi xigortua egiten zuten kafean bustitzeko. Aguardiente ere edaten zuten kafearekin.

47. Hilabeteen izenak euskaraz

- **Erref:** ARN-019/010
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ilbeltza, Otsaila, martxoa, apirila, maiatza, garagarria, uztaia, abuztua, buruila, urrirua, azaroa eta abendua.

48. Zotal edo xorte egunak eta ilargiaren eragina

- **Erref:** ARN-019/011
- **Iraupena:** 0:06:35. **Hasi:** 00:17:46. **Bukatu:** 00:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Abuztuan izaten ziren, lehen egunak. Egun horiek nolakoak ziren, igual samar egiten zuela abuztua, iraila eta urrian. Zer nolako denbora egingen zuen jakiteko egunak izaten ziren. Aunitzetan eragina omen zuen xorte egun horiek. Ilargiak ere eragina zuen. Gauza asko egin behar izaten ziren ilberan: patata erein, artoa ere bai, egurra botatzeko... Zerria hiltzeko ere ilargiari begiratzen zitzaion. Ilberan hitzen zen. Ardiei ilea ilberan mozten zioten. Ardiei noiz botatzen zitzaien aharia, ez zen beti libre.

49. Sua ez zen behin ere itzaltzen

- **Erref:** ARN-019/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Beheko sua izaten zenean ez zen behin ere sua itzaltzen uzten. Brasak biltzen ziren eta hautsarekin tapatzen ziren ongi, palarekin. 3 gurutze egiten zitzaizkion su horri eta pala gainean paratzen zioten. Aita beti jaikitzen zen lehena eta beti pizten zuen berak sua. Hautsa kendu, brasak agertzen ziren eta arbasta batzuekin berehala pizten zen sua. Gero egun txikiagoak eta ondotik handiagoak..

50. Bazkotan su berria eta ur berria

- **Erref:** ARN-019/014
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bazkotan ur bedeinkatu berria ekartzen zen etxera. Arboleak izaten zuten itsasita "kardatsa" izeneko sasi batzuk. Holakoak bildu eta su berria pizten zen arratsaldean. Kardatsa horiekin elizan. Su zaharra atera eta kardatseekin su berria sartzen zen etxera. Oraindik ere Arantzak etxeren batean egiten dute su berriarena.

51. Ogiaren inguruko sinismenak

- **Erref:** ARN-019/016
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:28:41. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ogia lurrera erortzen bazen hartu eta muxu ematen zitzaion. Ogia hasteko ogiari gurutzea egiten zitzaion atzealdean eta muxu ematen zitzaion ere.

52. Gonazpikoa ageria bazuen neskaren batek

- **Erref:** ARN-019/018

- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:31:37. **Bukatu:** 00:32:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Neskaren bati gonazpikoa agertzen bazitzaion gona azpitik, bere mutila beste norbaitekin zebilela esaten zen.

53. Muskerrak lepora jauzi eginez gero

- **Erref:** ARN-019/020
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:33:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Muskerrak lepora jauzi egin eta ausiki eginez gero, 5 herrietako ezkilak jo arte ez omen zen askatzen.

54. Erbinudea kolpatu ezkerro arroparik maiteena jaten zizun

- **Erref:** ARN-019/022
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:33:17. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Beste siniste bat: Erbinudea (comadreja) harriz kolpatu ezkerro arroparik maiteena jaten zizun.

55. Bi pertsonen gauza bera esan ezkerro batera, purgatoriotik anima bat ateratzen zen

- **Erref:** ARN-019/024
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bi pertsonen gauza bera esan ezkerro batera, ostiralez, purgatoriotik anima bat ateratzen zen

56. Difuntoei buruzko sinismenak: Ontza eta erleak

- **Erref:** ARN-019/026
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:38:00

Gaia(k):

Laburpena:

Uste hori bazen, ontzak etxe baten ondoan kukurruku eginez gero, etxe horretan azkar samar norbait hilen zela.. Etxe batean norbait hil ezkerorleari abisua ematen zitzaion argizaria egin zezaten. Erlauntzak eta erleari buruzko kontu ezberdinak kontatzen ditu: nola geratu arazi, erlauntzak nola prestatu...

57. Argizaria nola egiten zen

- **Erref:** ARN-019/027
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:41:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erlauntzatik bereskak hartu, egosi eta oihal batean iragazten zen. Ura kentzen zitzaion, garbitu argizaria eta hozten uzten zen. Txokolatea egiten zuten dendan argizariak ere egiten zituzten. Norbait hiltzen zelari, urtebetez izaten zen etxeko argizari bat piztuta elizan (lehenago ere elizan ehorzten zen jendea). Etxeko lurrari emateko ere balio zuen argizari hark. Etxeari argizaria nola ematen zioten azaltzen du, gasolinarekin.

58. Haur kantuak

- **Erref:** ARN-019/029
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:42:38. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Talo-talo txin hator etxera Juan Martin... kantua kantatzen du. Arre-arre mandoko ere bai.

59. Haur batek min hartzen zuelarik "senda-mina" esaten zitzaion. Erleak ausiki egin ezkerorle "polvo eta listo"

- **Erref:** ARN-019/031
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:43:29. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Senda mina, butzurdina, joan da gure haurraren mina! Kantatzen zieten min hartutako hurrei. Erleak ausiki eginez gero listua bota eta lurreko hautsa ematen zen gainean.

60. Hortza erortzean xagu-xaharrari ematen zitzaion

- **Erref:** ARN-019/032
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:44:21. **Bukatu:** 00:45:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Xagu-xaharrariematen zitzaizkion erortzen ziren hortzak: "Xagu xaharra, hortxe duk hortz zaharra, ekarri berria" esaten zuten. Aitak hortzak nola kentzen zizkien kontatzen du, irentsi ez zitzaaten.

61. Axeriaren ipuina

- **Erref:** ARN-019/034
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:45:48. **Bukatu:** 00:49:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Artzainak borda bat zuen mendian. Gauean ardiak itxi, bordan lo egin, jeitzi eta herrira jaisten zuen esnea biharamunean. Artzain batek gaztanbera egiten zuen. Etxolako leihoan jarri eta axeriak jaten. Egun batean axeriari ottoa agertu zitzaion eta beldurtu zen janen zuelakoan. Gaztanberaren berri eman zion jan ez zezan. Egia ez bazen otxoak axeria janen zuela. Biharamunean axeriak gaztanberaren barnekoa jan eta ardi kakaz bete du. Otxoak hori jan eta axeriak ospa. Otxoak azeria edo artzaina jan nahi zituen, tranpa nork egin zion ez baitzekien. Erleak heldu zaizkio otxoari eta errekan hil.

62. Kabartzaiaren ipuina

- **Erref:** ARN-019/036
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:49:51. **Bukatu:** 00:51:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Kabarra zaintzen zuen jendea, jendea pasatzen zuen ibaiaren alde batetik bestera. Gizon horrek ez zuen diru handirik. Batek pasatu nahi eta esan zion pasa ezkerre esaneri ziola munduko 4 egirik handienak. Kabartzaiak esateko, eta egia ez baziren putzura botako zuela. Pasatzen hasi eta astoa, ontza eta apaizari buruzko egiak esan zizkion beste lagunak. Ia beste aldean zirenean kabartzaiari buruzko egia bota zion: Galtza zaharrak dituk eta ni bezalakoak pasa ezkerre, beti ere zaharrak izanen...

63. Beletak ezin du urik edan abuztuan, ipuina

- **Erref:** ARN-019/038
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:51:55. **Bukatu:** 00:56:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Jesus Nazareten hil zenean, Erromatar batek 2 urtez beheitiko haur guztiak hiltzeko agindua eman zuen. Jesusek milagro bat egin zuen gariarekin eta 2 egunetan ondu zen, norbait hortaz jabetu eta segitzen hasi ziren. Handik San Jose, amabirjina eta Jesus pasatu ote ziren galdetuta, baietz, ogia erein zutenean pasa zirela. Aspaldi zelakoan ez zieten gehiago jarraitu, nahiz eta beleek salatu zituzten. Zubi batetik pasa ziren gero eta jito atso bat bazen han. Jesus nola pasako ote zuten handik, eta atsoak pasako zuela erantzun zuen, beti ere egia esanda. Laguntzeagatik ijitoek ebasteko eskubidea dute bekatu izan gabe. Beleek berriz uzta garaian debekatua dute ura edatea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com